

I. kapitulua

Online irakastea eta ikastea: distantzia soziala gaindituz

Albert Sangrà

1. SARRERA

Bizi izandako larrialdi-egoera haren eraginez, hezkuntza-erakunde askok planteatu zuen online-hezkuntzarantz igarotzea beren ikasleei klaseak ematen jarraitzeko, eskolak eta unibertsitateak itxita zeuden bitartean. Baina zer hartu behar da kontuan trantsizio hori egin behar dugunean? Zer modutan aldatzen dira hezkuntza presentzialeko egoera batean kontuan hartzen ditugun alderdiak, funtsean, online-hezkuntzako egoera batean? Kapitulu honetan, gaur egungoa bezalako hezkuntza-larrialdi bati erantzuna emateko hainbat planteamendu aztertzen dira, online-hezkuntzaren eredu onenen printzipioak aplikatuz proposamen praktiko eta oinarritu batean.

Inork ez dezala errezetarik espero. Krisi-egoera batean, bakoitzak larrialdia modu batean bizi duelarik, bere testuinguru sozial eta ekonomikoaren arabera, bere ikasleen adinaren arabera, nazio-erregulazioen arabera, izugarri arriskutsua da errezetak eman nahi izatea. Modu askotara egin daiteke guztia; guk erreferentziatzko marko orokor bat ematen saiatu nahi dugu, eta hortik beharrezko erabakiak hartzen joan daiteke bakoitza, bere behar espezifikoetara egokituta.

2. HEZKUNTZA EZ-PRESENTZIALA, UNE KRITIKOETARAKO IRTENBIDEA

Sarritan, historian zehar, urrutiko hezkuntzara jo izan da egoera kritikoak konpontzeko. Nahiz eta azaldu eta defendatu urrutiko hezkuntzaren helburua beti izan dela hezkuntza-proposamen bat garatzea hezkuntza-sistemek ekitatez jokatzea ahalbidetzeko eta hezkuntzarako sarbidea erraztea arrazoi geografiko, laboral, ekonomiko edo kulturalengatik hezkuntzara gainerakoen baldintza beretan sartu ezin direnei (Moore, 2013), nahiz eta gaian adituek azaldu eta aholkatu online-hezkuntzaren ereduak garatu behar direla onura sozial, indibidual, ikaskuntzako eta prestakuntzakoetan oinarrituz gizarte digitalizatu batean (Moore, 2013), online-

hezkuntza ezartzea azkartu izan duten erabaki handiak hezkuntza-eztabaidatik kanpo egon dira beti, eta muturreko egoeretan izan dute jatorria. Azken baliabidearen legea da hori.

Horrela gertatu zen, esate baterako, 1840an estenotipia asmatu zenean takigrafoen trebakuntzarako beharraren aurrean, posta-trukezko prestakuntzaren bidez. Erresuma Batuko bazter guztietara prestatzaileak bidaltzea oso garestia zenez, Isaac Pitman-ek posta bidezko ikastaroak antolatu zituen; interesa zuten guztiek herri bakoitzeko posta-bulegoaren bidez jasotzen zuten materiala, hura baitzen udalerrri britainiarren erakunde komun bakarra. Prestakuntza hori mundu guztiak jaso ahal izatea ziurtatu nahi zen, bizilekua kontuan hartu gabe, eta garai hartako erdi mailako biztanleriak eskuragarria zuen teknologia erabili zen horretarako.

Johns Hopkins Unibertsitatean (Baltimore) garatu ziren forentse-prestakuntzarako lehenengo multimedia-materialik onenak. Estatu Batuetako Maryland estatuko unibertsitate horrek praktiketarako gorpu eskasia izugarria izan zuen bere Medikuntza Fakultatean. Inbertsio ekonomiko garrantzitsu bat egin zen karrerako azken urteetako ikasleek autopsia simulatuak egitea ahalbidetuko zuen multimedia-aplikazio bat garatzeko. Arrakastatsua izan zen oso; gerora egindako hobekuntzen ondorioz, ikaskuntza-material onenetako bat bihurtu da ingurune digitalean, eta uste osoa eragin du tradizionalki soilik modu presentzialean uler zitezkeen jakintzen ikaskuntzan multimedia-simulazioek egin dezaketen ekarpenari dagokionez. Vancouver hirian, Kanadan, etengabeak dira trafiko-pilaketak. British Columbia Unibertsitatea (UBC) istmo batean dago. Paisaiak idilikoak dira, baina kale bakarrean dago unibertsitaterako sarrera, istmorako sarbidean, eta horrek domino-efektu hilgarria sortzen zuen hirian. Goizeko lehen orduan, ikasle guztiak unibertsitatera zihoazenean garraio bideetan, hiri osoa blokeatuta geratzen zen. Une haietan, joan den mendeko laurogeita hamarreko urteen amaieran, Distance Education and Technology in the Continuing Studies Vancouverreko unibertsitate nagusiko dibisioa Tony Bates doktoreak zuzentzen zuen (2019). Unibertsitateko ikasleen sarrera mailakatzea izan zen konponbidea, eta lehen orduan ematen ziren ikasgaiak online-ikasgai bihurtuz lortu zen hori. Horrela murriztu zen zorrozki unibertsitateak goizetan sortzen zuen kolapsoa. UBC unibertsitate aitzindaria eta aintzatetsia izan da hezkuntza hibridoaren eta online-hezkuntzaren esparruan urte askoan zehar.

Hainbat gizarretan bizi izan dituzten momentu kritiko horiek eraginda ala ez, online-hezkuntzak etengabe hazten jarraitu du munduan. Estatu Batuetan, Goi Mailako Hezkuntzako ikasleen % 31,6 gutxienez online-ikastaro batean matrikulatuta daude, eta ia % 15 online-titulu oso batean (Seaman, Allen; Seaman, 2018). Kanadan, Donovan-ek eta bestek (2018) baieztatzen dute ikasleen % 17k programa osoak online jarraitzen dituztela, eta Goi Mailako Hezkuntzako erakundeek ere % 17 hazi dute beren online-eskaintza. Australian, Norton, Cherastidham eta Mackey autoreen ikerketa baten arabera (2019), ikasleen % 20k ikasketak guztiz online egiten

dituzte; % 45, berriz, online-ikasgaireren batean matrikulatu dira. Europa ere norabide horretan ari da mugitzen. Adibide ditugu, Italian, unibertsitate telematikoetako ikasleen gorakada; Europako iparraldean, online-ikaskuntza malguaren erabilera; edo, Espainian, graduak eta graduondokoak erabat online ikasten dituzten ikasleen % 15eko datua (Hernández-Armenteros; Pérez-García, 2018).

Horri guztiari hainbat ikerketa erantsi behar dizkiogu, online-programen bidezko ikaskuntzaren emaitzak ikasgelan metodo tradizionalen bidez lorturikoen berdinak edo hobeak direla erakusten dutenak (Means, Toyama, Murphy *et al.*, 2009; Seaman *et al.*, 2018). Dena dela, emaitza onak gora doazela egia bada ere, online-hezkuntzaren kalitatea beti jarri izan da zalantzan, eta halaxe izaten jarraitzen du. Hortik ondoriozta daiteke gauzak ondo egitearen garrantzia, eta baita ondo diseinaturiko eta gauzaturiko online-hezkuntzaren benetako lorpenen ebidentziak erakustearena ere.

3. COVID-19A: GURE LARRIALDI-EGOERA

Larrialdi-egoeretan, talka-konponbideak erabiltzen ditugu, ikasi duguna aplikatzen saiatuz desiratu ez dugun baina erantzun bat eskatzen duen egoera batean. Zer arrisku dute talka-konponbide horiek? Onik ateratzeko balio izan digun konponbide hori behin betiko konponbidea dela uste izatea, eta erabili dugun horretan betikotzea. Hori akatsa litzateke.

Pandemiaren hasieran, Txinan dauden unibertsitate iparramerikar batzuek —lehenik kaltetu zirenak— *online-konponbide* batera jotzea erabaki zuten, azkar batean. Online-hezkuntza zer den jakin gabe aritu ziren, baina seguru asko beharrezko teknologia erabilia, eta kaltetu guztiek borondate handia jarrita. Horren berri ematen zuen albisteak zioen irakasleak eroso aritu zirela, nahiz eta irakasleen % 88k aurrez esperientzia esanguratsurik ez izan online-irakaskuntzan. Aurrerago, baliteke entzun behar izatea lorturiko emaitzak ez direla guztiz esperotakoak izan, edo, batez ere, ez direla aurrez aurreko eskolen maila berekoak izan, hasiera batean aurreikusi zen moduan. Oso litekeena da, baita ere, inor ez gogoratzea online-irakaskuntzaren metodologian esperientziarik eta prestakuntzarik ez zuten irakasleen % 88 horretaz. Emaitza hipotetiko ez hain on horien errua erabilitako metodologiari botako diote, berari balebago bezala baldintza egokietan gauzatzearen ardura inork hartu ez izana.

Konfinamendu-garaian egiten aritu garena ez da online-hezkuntza (edo ez behintzat guztia) (Hodges *et al.*, 2020). Garrantzitsua da hori argi izatea, online-hezkuntzari buruz ditugun itxaropenak zapuztu ez daitezten. Teknologia zehatzak erabiltzen saiatzen ari gara, pandemiak eragindako distantzia sozialaren gaur egungo agindua gainditzeko. Beraz, eztabaidatu dezakegu ea goi-mailako hezkuntzako erakunde batentzat eredu hibridoa den hoberena, baina gerta liteke modalitatea aukeraterik ez izatea ere, orain bezala. Egoeraren baldintzek bultzatzen gaituzte zehaztera % 100 online den eredu bat dela momentu honetan eredu bideragarri

bakarra. Eta hori onartu egin behar da, egoera honetan ahalik eta emaitzarik hoberenak lortzeko. Zalantzarik gabe, edozein hezkuntza-ereduk, ondo gauzatu ahal izateko, aurre egin behar dio berekin loturiko erronka eta zailtasun multzo bati. *Arrakala digital* deritzona izan daiteke zailtasun horietako bat. Baina ez da onartzekoa online-hezkuntzaren edo ez-presentzialaren indarra zalantzan jartzea geure arazo guztiak konpontzen ez dituelako. Aurrez aurreko hezkuntzak geure arazo guztiak konpontzen ote ditu ba? Ez ote dago eten sozial bat, pertsona askori ikaskuntza-helburuak lortzea eragozten diona? Badakigu familia askok ez dutela ez nahikoa hezkuntza-mailarik beren familiakideei laguntzeko, ezta beste konponbide batzuk izatea ahalbidetuko liekeen maila sozioekonomikorik ere. Eta orduan bururatzen al zaigu errua aurrez aurreko hezkuntzarena dela esatea? Alderantziz, defendatu egiten dugu gauza guztien gainetik, geurea delako, eta geurea bezalako besterik ez dagoelako. Bada, orain aldatu egin da egoera. Geurerik ez daukagu. Zer egingo dugu? Iritsi ote da, agian, beste bat hartzeko garaia?

4. DISTANTZIA SOZIALA GAINDITZEA

Atsotitz anonimo batek honela dio: «Ez dago interes falta baino distantzia luzeagorik». Beraz, ondoriozta dezakegu, interesa izanez gero, edozein distantzia izan daitekeela gainditzeko modukoa. Online-hezkuntzak lagundu diezaguke distantzia soziala gainditzen, edo, gutxienez, mugetako batzuk gainditzen, baldin eta kontuan hartzen baditugu oinarrizko elementu batzuk eta horiei aurre egiteko modua.

4.1. Pertsonak: zuen ikasleak

Ezagut itzazue. Ondo ezagutzen dituzue klasean zaudetenean. Eta ondo ezagutzen al dituzue sareetan dabiltzanean? Klasean zalantzarik izaten ez duen hark berdin jokatzeko al du elkarrengandik distantzia batera zaudetenean? Beti isilik dagoen ikasleak errazago adierazten al du nahi duen hura ingurune birtualean? Zergatik? Zerk motibatzen ditu klasean? Eta motibatzen al ditu online izateak?

Kontuan hartu haien adina, haien gaitasunak eta haien autoantolaketa eta autonomiarako maila. Zuen ikasleek ba al dakite gailu digitalak erabiltzen estudiatzeko? Badakigu badakitela argazkiak Instagramera igotzen eta oso dibertigarriak direla TikTok-en; baina ez da gauza bera aplikazio horiek berdin arteko komunikazio-mekanismo gisa erabiltzea eta ikasteko erabiltzea. Pentsa ezazue aukera ona izan daitekeela zentzu horretan haz daitezen, eta ildo hori indartzen duten jardura batzuk ez direla alferrikakoak izango. Esate baterako, demagun eskola batek egunero erronka bat gainditzeko proposatzen diela bere ikasleei eguneko lehen jardura gisa; karpeta partekatu batean beren txikitako argazki bat zintzilikatzea bezain erraza izan daiteke, eta kasu bakoitzean zein den asmatzen saiatu beharko dute. Beren konpetentzia digitala arian-arian garatzeak konfiantza handiagoa sentiaraziko die ikaskuntzaren ingurune horretan; izan ere, berria da hori haientzat ere, baina beren baitako bihurtzea lortu behar dute.

Identifika itzazue arazoak dituzten ikasleak. Bereiz itzazue arazo horiek beren izaeratik; eman garrantzia eragiteko aukera handirik ematen ez dizueten arazoei, eta jarri arreta zeuek zeuen bitarteko eta gaitasunen bidez konpon ditzakezuen haietan.

4.2. Antolaketa

Neurtu ondo lan-kargak. Lankide batzuek honela esan didate: «Aurrez aurre etortzen zirenean baino lan gehiago ari dira egiten orain». Bitxia, ezta? Hori ongi dago, noski; baina kontuz gero hasieratik erretzearekin. Bistakoa da etxean ikasteak autonomia, diziplina eta erantzukizuna eskatzen duela, baina ikasle guztiek ez dituzte neurri berean garatzen ezaugarri horiek. Beraz, ezaugarri horiek badituzten ikasleei dagokienez, azter dezagun nola indartu ezaugarri horiek, eta, halako ezaugarririk ez dutenei dagokienez, azter dezagun nola erantsi. Funtsezkoa da arnasa hartzen uztea gogoeta egiteko tartea izan dezaten eta egoera berri honetara egokitu daitezten. Horixe da irakasleok eskatzen duguna ere, ezta?

Har itzazue kontuan epe zabalak (adibidez, aurrez aurreko eskolako lanordu batek sareko hiru egun izan ditzake baliokide, nahiz eta dedikazioak ordubetekoa izaten jarraituko duen). Kontuan izan aurrez aurreko denbora ez dela denbora birtuala bezala igarotzen. Egunek hogeita lau ordu dauzkate, bai, baina asinkroniak bide emango digu denboraren dimentsioa zabaltzeko ondo kudeatzen badugu, ez baikaitu behartuko guztiok gauzak aldi berean egitera. Onar itzazue malgutasun-mailak: sentiaraz itzazue erosoago.

Ez ezazue errepikatu aurrez aurreko klasea: zuek zaudeten —eta batez ere haiek dauden— testuinguru jada ez da bera. Testuinguru digitala testuinguru presentziala ez bezalakoa da: irakasleok ondo ezagutzen duzue testuinguruaren garrantzia. Errutina bat sortzea ez da eskolan egiten zenuten gauza bera egitea.

Zuetako bakoitza klaustro bateko edo irakaskuntza-senatu bateko kide zarete. Koordina zaitezte, ez baita onargarria izango ikasleek lau orduan pantailaren aurrean egon behar izatea soilik bideoak ikusten. Nekagarria da. Pentsa ezazue online-hezkuntza badela pantailaz kanpo egiten duten lana ere, eta oso kontuan izan behar duzue hori.

4.3. Interakzioa

Batzuetan ezingo diezue begietara begiratu. Ezta bideokonferentzia-tresna baten bidez ere. Ezta haiek zuei ere, seguru asko. Bilatu itzazue adierazleak, kontzeptu edo prozedura bat ulertu duten jakiteko edo beren aldartearen zein den jakiteko semaforoak.

Benetan ondo funtzionatzen duten online-hezkuntzaren ereduak interakziorako apustu argi bat dute beren oinarrietan. Akatsa da pentsatzea edozein irakaskuntza mota ez-presentzial edukiak erraz lortzeko bide ematean oinarritzen dela soilik (materialak, baliabideak, eta irakurgaiak edozein formatu eta euskarritan). Ezartzen den interakzio-mailak bereizi egiten ditu online-hezkuntzaren eredu onak.

Ez itzazue nahas interakzioa eta komunikazio sinkronoa. Interakzioa hainbat formatu eta euskarritan gauzatu daiteke, baina ezin da aurrez aurre egingo litzatekeen modu berean egin, orduan porrot egingo baikenuke seguruenik. Baldintzak ez dira berdinak: emaitzak ez dira berdinak izango, helburuei eutsi egingo bazaie ere. Ez dago gaizki komunikazio sinkronoa erabiltzea taldearekin momentu jakinetan, eta helburu zehatzetarako. Adibidez, eta hezkuntza-mailaren arabera, egokia izan daiteke bilera sinkrono batekin hastea eguna ikasle guztiekin; horrek bide emango luke honelako mezuren bat botatzeko: «Hasi da lan-saioa, lan egin dezagun», ikasleek errazago onar dezaten eguneroko diziplina bat —ikasleek ez baitaukate etxetik lan egiten ohituta egon beharrik—, eta, modu horretan, gehiegizko lasaitasuna ere saihestu dadin. Ez da ona, ordea, baliabide hori gehiegi erabiltzea ere. Taldean bideokonferentzia batean denbora luzez egotea nekagarria da, baita aspergarria ere, eta murriztu egiten du ikasleen beren motibazioa.

4.4. Baliabideak

Nahiago dugu baliabideez hitz egin materialez edo edukiez hitz egin baino. Baliabide bat eduki soil bat baino urrunago doa. Ez ezazue sufritu, ez ditugu edukiak alde batera utziko; baina larrialdi-egoera batean gaude, eta ahalik eta modu eraginkorrenean jokatu behar dugu. Erabil itzazue baliabide garrantzitsu eta esanguratsuak. Sarritan, larrialdi-testuinguru honetan, Guasch eta Espasa nire kideek VIII. kapituluaren eta Raffaghellik IX. kapituluaren berretsiko duten gisara, gutxiago gehiago da. Hobe izango da kontzeptu bat ondo uler dezaten material garbi batetik abiatzea eta beren konfiantza areagotzea, eta ez baliabide askorekin gogaitzea; horietako asko, gainera, kontraesankorrak iruditzen zaizkie sarritan.

Ez itzazue tresna asko ere erabili. Utz iezaiezue horietako batzuk ondo ulertzen eta erabiltzen. Erraztu ezazue kontua; ez erantsi zailtasun gehiago dagoeneko izan ditzaketan horiei. V. kapituluaren, Romerok tresna sorta ederra azalduko dizue, haietatik onenak hautatzeko.

Bideokonferentzietan saio *erdipresentzial* deritzenik ere bada, kontzeptuzko akats izugarri bat agerian jarritz: aurrez aurreko eskola antzeratzen dutela uste dute, eta gero bakoitzak urrutitik lan egiten du. Baina hori ez da egia! Guztiak ari dira urrutitik lan egiten denbora guztian! Eta hori ulertu egin behar da ondo egin ahal izateko. Erabil itzazue bideokonferentziak soilik gaiei hasiera emateko, zalantzak eta alderdi puntualak argitzeko, eta inoiz ez itzazue egin 30 minutu baino luzeagoak. Kapitulu honen «Gehiago jakiteko» atalean, aholku batzuk aurkituko dituzue bideokonferentzien erabilerari buruz.

4.5. Laguntza: konpainia eta segimendua

Online ikastea zailagoa da bat bakarrik sentitzen bada. Izan zaitezte baikorrak. Zuen ikasleak zuek adina edo zuek baino kezkatuago daude, eta baliteke beldurra

ere sentitzea. Gogoratu ezazue Victor Borge musikari eta komediante daniarrak esan zuena: «Barrea da bi pertsonaren arteko distantziarik gertukoena».

Lagundu iezaiezue antolatzen. Hobe da pare bat egun hartzea gomendioak emateko eta espazioak eta etorkizuneko lana ondo egituratzeko (uler dezatela, ondo kokatuta egon daitezela, ez dezatela zalantzarik izan...), eta ez garrantzitsuena edukietan aurrera egitea dela eta egun gutxi ditugula pentsatzea. Antolatzen laguntzeari eskainitako denbora oso ondo erabilia egongo da, konfiantza eta segurtasuna emango die, eta horrek beren ikasketa-lana hobeto gauzatzea ekarriko du.

Eman iezaiekizue jarraibide batzuk etxean bakarrik ikasteko moduari buruz. Edo, agian hobeto, atera zeuek elementuak kasu bakoitzerako garrantzitsuenak iruditzen zaizkizuen jarraibideetatik. Liburu honen kapituluetan zehar aukera izango duzue baliabide horietako batzuk zehatzago ezagutzeko; bereziki VI. kapituluan, Romeurenean, eta X.enean, Guitertenean, kapitulu honen amaieran bertan aurkitu ditzakezuenaz gain.

4.6. Ebaluazioa

III. kapituluan, Cabrera eta Fernández-Ferrer autoreek oso bidaia interesgarria eskainiko dizuete online-hezkuntzaren lurraldean zehar. Hemen soilik nabarmendu nahi dugu funtsezkoa dela ebaluazio dibertsifikatu bat planteatzea, ikasleen aurrerapenari buruz informazioa emango diguten iturriak erabiliz... Oraindik hobeto aurrera egiten lagundu diezaiegun.

Pentsa ezazue ebaluazio prestakuntzazko eta jarraitu batean. Kontua ez da edukiak aldatzea, baizik eta ebaluatzeko modua aldatzea: frogak eskatu, zergatik konpontzen den arazo bat modu jakin batean, eta abar. Prozeduran jarri arreta, emaitza gisako datu batean baino gehiago. Horrek bermatuko dizue benetan zuen ikasleek zer ikasi duten hobeto ezagutzea.

Ez du ikaskuntza hoberik ziurtatuko zuen ikasleei ebaluazio-jarduerak gehiegi kargatzeak; irakasleari ondoren gainkarga bat ekarriko diola soilik ziurta dezakegu, eta horrek eragotziko dio bere irakaskuntzaren kalitateari eusten eraginik nabaritu gabe.

Ez ezazue baztertu ebaluazioa binaka gauzatzerik, dagokion mailan. Jarduera mota horrek ebaluatu behar dena ondo ulertzera eta justifikatzera behartzen ditu ikasleak, eta asko indartzen ditu beren ikaskuntza-prozesua eta beren autonomia ere. Ez ezazue ahaztu feedbacka modu egokian erabiltzea, horrek elkarrekintzarako aukera ezin hobea eskainiko baitigu gainera. Guaschek eta Espasak sakonago kontatuko dizuete hori VIII. kapituluan.

Eta, batez ere, oso garrantzitsua bada ere, ez iezaiozue ebaluazioari balio handiegirik eman. Funtsezkoa da ebaluazioak ikasturtea diseinatu dugun moduari

eta gauzatu behar diren ikaskuntza-jarduerei erantzutea. Gure misioa eurek ikastea da, ez soilik kalifikatzea. Gaiari dagokionez, proposamen oso interesgarriak egiten dituzte Guàrdiak II. kapituluan eta Mainak IV.ean.

4.7. Arrakala digitala

Zalantzarik gabe, baldintzatzailea da. Gaur egun, ezagutza bihurtzeko prozesatu behar dugun informazioaren zati oso garrantzitsu bat —irakasleok gure bitartekotza egin ostean (Badia, VII. kapitulua)— sarean dagoenean, ezin da onartu oraindik ere hori eskuragarri ez duen inor izaterik. Interneterako sarbidea izatea herritar guztien eskubide unibertsaltzat hartu behar litzateke, orain dela urte asko liburuak mundu osora iritsi zitezen borrokatu zen gisa berean eta herri-liburutegiak sortu ziren modu berean. Ez du askorik balio konektagarritasunik ez duen jendea badagoela esanez kexatzeak. Autoritateei konektagarritasun hori ezin besterenduzko eskubide gisa eskatzea izan daiteke askoz urrutiago eraman gaitzakeen lehen urratsa. Benetako alfabetizazioak baliabide eta gailu digitalak ulertzeko eta erabiltzeko gai izan behar du, eta hezkuntza-erakundeetatik ere lagundu diezaiekegu familiei digitalki alfabetatzen, arrakala digitala leuntzen lagunduz.

Etxeetako desberdintasun digitalak agerian geratu badira ere, ikusi dugu, baita ere, gabezia hori konpontzea ez zela oso zaila izango. Baina badira arrakala digitala baino arrakala sozial kezkarriagoa eragiten duten desberdintasun sozialak, familiei laguntzea ezinezkoa denean. Izan ere, gogoan izan behar dugu badirela aurrez aurreko hezkuntzak, oraingo, konpondu ez dituen arazo batzuk.

4.8. Eta nola antolatu behar dugu guk?

Taldean. Gero eta gehiago, sarean lan egiten dugu. Babestu dezagun elkar teknologiak laguntza ematea errazten digula baliatuz, nahiz eta bakoitza ez egon bestearen klase barruan. Has gaitzen kontuan hartzen indartsu hedatzen ari den kontzeptu bat: irakaskuntza partekatua. Gure arazoak antzekoak izango dira. Gure erantzunak koordinatuak izan daitezke. Garrantzitsua da sinergiak sortzea, gure lankidetzaren emaitza ekintza indibidualen batura baino gehiago izatea ahalbidetuko dutenak. Irakur ezazue Guitert, X. kapituluan.

5. LABURPENA

Egia da hezkuntza-erakundeetan dugun ingurune presentziala ez dela gutxietsi behar, eta, orain asmatzen badugu nola indartu eta aberastu gure ikasleen ikaskuntza online-jarduera eta -baliabideen bidez, gero gai izango gara horietaz baliatzeko eta gure errealitate presentzialari lotzeko, ikaskuntza-aukera berri ugari sortuz gure ikasleentzat eta geure buruentzat: horrek gure ikaskuntza-ekologiak aberastea ahalbidetuko digu (Romeu, Guitert, Raffaghelli *et al.*, 2020; González-Sanmamed, Sangrà, Álvarez *et al.*, 2018).

Beraz, oso garrantzitsua da irakasleek zer jarrera agertzen duten egoera honi aurre egiteko; nik ez nuke *aukera* izendatuko, dramatikoa baita egoera, baina bada guztiontzako ikaskuntza-eremu desberdin bat. Beharrezkoa izango da administrazioek ere mezua ulertzea, eta konfiantza, babesa eta tresnak eman diezazkigutela, halakoak askotan ez baitira lortzen soilik dekretuz.

Badakigu online-hezkuntzak indar eraldatzaile izugarria duela pertsonen bizitzan, eta kalitate handikoa izan daitekeela, baldin eta hezkuntza-zorroztasunari, irakasleekiko interakzioari eta online-ereduaren beraren berezitasunari lotzen bazaio.

Zalantzarik gabe, ordea, urak sartuko dira beren arrastora... Eta Nerudak idatzita utzi zigun moduan: «Eta orduan, egun batez, guztia berriz hasten da... eta irribarrea bihurtuko da berriro zure bizitzaren jabe».

GEHIAGO JAKITEKO

Online-ikerketaren planifikatzea: <http://materials.cv.uoc.edu/cdocent/PID_00239891/>

Informazio digitalaren antolaketa optimizatzeako jarraibideak: <<http://informacio-digital.recursos.uoc.edu/es/>>

Informazioa Internet bidez bilatzea eta lokalizatzea: <<http://cerca-informacio.recursos.uoc.edu/es/>>

Tresna digitalen biltegia (Toolkit): <<http://eines-digitals-toolkit.aula.uoc.edu/es/>>

Managing Technology in Higher Education: Strategies for Transforming Teaching and Learning (kapituluen laburpen irekia; badago liburuaren gaztelaniazko bertsioa; Octaedro arg.): <<https://www.batesand.sangra.ca/>>

Gogoeta teknopedagogikoak bideokonferentzia hezkuntza-jardueretan sartzeko (I): <<http://edulab.uoc.edu/es/2020/04/21/consideraciones-tecno-pedagogicas-para-integrar-videoconferencia-las-actividades-educativas-1/>>

Gogoeta teknopedagogikoak bideokonferentzia hezkuntza-jardueretan sartzeko (II): <<http://edulab.uoc.edu/es/2020/04/23/consideraciones-tecno-pedagogicas-para-integrar-videoconferencia-las-actividades-educativas-ii/>>

BIBLIOGRAFIA

Bates, A. W. (2019). *Teaching and Learning in a Digital Age. Guidelines for designing teaching and learning*. (2. argit.) [liburua sarean]. [Kontsulta-data: 2020ko uztailaren 11].

<<https://opentextbc.ca/teachinginadigitalage/>>

Donovan, T.; Bates, T.; Seaman, J. et al. (2018). *Tracking online and distance education in Canadian universities and colleges: 2018* [txostena sarean]. Canadian National Survey of Online and Distance Education. Canadian Digital Learning Research Association. [Kontsulta-data: 2020ko uztailaren 11].

<<https://onlinelearningsurveycanada.ca/publications-2018/>>

González-Sanmamed, M.; Sangrà, A.; Alvarez, I. et al. (2018).

«Ecologías de aprendizaje en la Era Digital: Desafíos para la Educación Superior». *Publicaciones* (48. lib., 1. zk., 11-38).

Hernández-Armenteros, J.; Pérez-García, J. A. (2018). «La Universidad española en cifras (2016/2017)» [txostena]. Hemen: Conferencia de Rectores de la Universidades Españolas [sarean]. Crue Universidades Españolas. [Kontsulta-data: 2020ko uztailaren 11].

<<http://www.crue.org/Documentos%20compartidos/Publicaciones/Universidad%20Espa%C3%B1ola%20en%20cifras/2018.12.12Informe%20La%20Universidad%20Espa%C3%B1ola%20en%20Cifras.pdf>>

Hodges, C.; Moore, S.; Locjee, B. et al. (2020, martxoa). «The Difference between Emergency Remote Teaching and Online Learning» [artikuluaren sarean]. EDUCAUSE. [Kontsulta-data: 2020ko uztailaren 11].

<<https://er.educause.edu/articles/2020/3/the-difference-between-emergency-remote-teaching-and-online-learning>>

Means, B.; Toyama, Y.; Murphy, R. et al. (2009). «Evaluation of evidence-based practices in online learning: A meta-analysis and review of online learning studies» [txostena sarean]. U.S. Dept. of Education. Center for Technology in Learning. [Kontsulta-data: 2020ko uztailaren 11].

<<https://www2.ed.gov/rschstat/eval/tech/evidence-based-practices/finalreport.pdf>>

Moore, M. G. (2013). «Historical and Conceptual Foundations. An Overview». Hemen: Moore, M. G. (arg.). *Handbook of Distance Education* (1-3). New York: Routledge.

Norton, A.; Cherastidtham, I.; Mackey, W. (2019, abuztua). *Risks and rewards: when is vocational education a good alternative to higher education?* [txostena sarean]. Grattan Institute. [Kontsulta-data: 2020ko uztailaren 11].

<<https://grattan.edu.au/wp-content/uploads/2019/08/919-Risks-and-rewards.pdf>>

Romeu, T.; Guitert, M.; Raffaghelli, J. et al. (2020). «Ecologías de aprendizaje para usar las TIC inspirándose en docentes referentes». *Comunicar* (28. lib., 62. zk., 31-42).

Seaman, J. E.; Allen, I. E.; Seaman, J. (2018). *Grade Increase: Tracking Distance Education in the United States*. Florida: Babson Survey Research Group.